

Galderak

Kultura euskarari darion elikagai sinbolikoa da.

Gutasuna ematen du. Hizkuntza bat, kultura bat?

Euskarak eta euskal kulturak gune hegemonikoak behar ditu? Ez al da hori baztertzailea?

Euskal kultura euskarazkoa al da bakarrik?

Kultur politikek hizkuntzazko bereizketa behar al dute? Ez al da dena kultura?

nola egin, halako izan

euskal kulturaren oinarri eta estrategia batzuk

“Euskal nazioa atomizaturik dago. Bildu egin behar da. Kulturgintzak bakarrik esan lezake non bildu. Horixe da gure kulturgintza: herrigintza, naziogintza, komunitate baten berregintza”

Joxe Azurmendi

Joxe Azurmendi

Garenak nola egin esaten baitu

- Kultura sakonetik biziberritzeko giltza, modu, eredu edota kultur politikez harago, hizkuntza da: nola egiten dugun horrek nolakoak garen esaten baitu. Alegia: euskara kontzienteki erdigunean jartzeak modu jakin bateko eredu eta kultur politikagintza eskatzen edo ekartzen du halabeharrez.

- Gurean, jokoan duguna, ez da instrumentaltasun kontu bat, ez da kultur politika neurriak aplikatze soila, ez hori bakarrik: komunitate baten ezagutza lortzea, izatearen sentimenduak zabaltzea eta maila desberdinetako eragile kontzientziatuak sortzea baizik. Euskal kulturaren biziberritzearen historiak hori erakusten digu.

tradizio partekatu baina desberdina
60-70etako berpizkundea
80ko erakundetzea
amateurismoa / profesionalizazioa
kultur politika publiko bera bi hizkuntzetan
formazioa, transmisioa, merkaturatzea
goitik behera / behetik gora
hizkuntzaren hegemonia

- Antzerkia eta bertsolaritza, bi paradigma, bi eredu:
- Zer ginen? zer gara? nola definitzen dugu geure burua?
- Zer garen jakinda asmatuko dugu nola jokatu.


- Euskararen premiei erantzun beharrak hizkuntzaren egoera **soziolinguistikoa kontutan izatea dakar.**
- Euskararen egoera ez normalizatuak **profesional zein zaletuak** biltzeko ezinbesteko beharra du. Behetik gorako ereduak





- Euskara erdigunean jartzen duen diziplina orok **transmisio bideak** antolatzea ezinbesteko du, transmisio naturala oso eremu gutxitan ematen baita.
- Euskara erdigunean jartzen duen ezin diziplinak **merkaturatze eta hedatze sistema** propio eta berezia landu beharra du.

- Euskara erdigunean jartzen duen ezein diziplinak **administrazioarekin elkarlana** ezinbesteko du.
- Euskara erdigunean jartzen duen ezein diziplina euskararen eta euskal kulturaren **eragile eta sustatzaile** izan behar du.



**euskaldunok gure kultur
espazio propioa
eraikitzeko ahalmena
izan dezagun bermatu
behar da.**

**Espazio propio hori euskal
kultura da**

**Kultur espazio propioa
izateko eskubidea ezezik,
premia ere badugu.**

- “Euskal kultura gero eta umeago egiten ari gara merkatu parametroek eraginda”. **1.3. solaskidea**
- “Gaur egun Pirritx eta Porrotx dira transmisio sistema onena”. **1.39 solaskidea**
- “Gure drama zera da: ikusezinak garela euskaldunentzat ere”. **1.40 solaskidea**
- “Kalitate handia dago, aniztasuna, baina ETBk ez du ematen eta inpresioa eman lezake ez dagoela ezer. Baina inoiz baino gehiago dago”. **1.33 solaskidea**

- “Normal itxura egiten dugunean gara anormalen. Garena izateak ez gaitu arlote egiten” 1.16 soslaskidea
- “Jendearen erantzuna ezinbestekoa da. Zergatik ez dago kontsumorik? Mundu eroso batean bizi gara, dena eskura, konpromisoak laxatu egin dira... Kontsumitu ahal izateko bisible izan behar da eta horretarako transmisioa giltza da”. 1.45 solaskidea

- “Kulturaren Euskal Planean euskal adjektibo moduan erabiltzen da, ez substantibo moduan. Guk guretzat eginiko politikak behar ditugu. Honek guztiak ebidentea dirudi, baina hemen ezin da aipatu ere egin, bestela berehala esango dizute itxia zarela, ghettoan bizi nahi duzula...” **1.9 solaskidea**
- “Kulturak zerbait badu hizkuntza du. Julio Medem ez da euskal kultura eta kitto. Eztabaida horrek ez du ez hanka ez buru”. **1.31 solaskidea**

- “Administrazioak euskararen alde zerbait egiten badu diskriminazio positiboa da. SPRIk zerbait antolatzen badu (beti-beti gaztelera hutsez) hori ez al da erdalgintza? Etxezarretaren soldata euskal hizkuntz politikan sartzen bada, Aresena ez ote da erdal hizkuntz politikan sartzen? 1.18 solaskidea
- “Zein gutxiengo mailan geratuko garen paktatzen ari gara oraindik emakumeok”. Marcela Lagarde, ‘Argia-n’, 2010eko urtarrilean

Euskal kulturgintzaren biziberritzea ulertzeko oinarriak

- Euskal kulturgintza da euskarari darion kulturgintza eta euskal hizkuntza komunitatea sinbolikoki elikatzen duen sorkuntza. Berebiziko egitekoa du gure herrigintzan.
- Jakintza soziolinguistikotik eta hizkuntzen ekologiaren paradigmatik biziberritu behar da euskal kulturgintza.

- Oinarrizko bereizketa egitea beharrezkoa da: berbazko euskarazko sorkuntza, berbazko erdal sorkuntza eta ez-berbazko sorkuntza.
- Berbazko euskarazko sorkuntzak nagusiki eta ez-berbazko sorkuntzako elementu batzuk osatzen dute euskal hizkuntza komunitatearen elikagai funtzioa betetzen duen kulturgintza nuklearra.

- Euskal kulturgintzara gizarte eta teknologia aldaketek dakartzaten desafio eta aukerak eta komunitatearen dinamikak elkarrekin gurutzatuta bakarrik uler dezakegu egoera modu zabal batean.
- Euskal kulturgintzaren analisi instituzionala edo eragile-analisia egiterakoan, oso kontuan hartu behar da euskal komunitatearen konfigurazioan gizarte-ehunak duen garrantzia.

- Merkatu parametro estandarretik haratago dagoen kultura sorkuntza eta ospakuntza humanizatzailea izateko birsortzeko aukera izan du eta du euskal kulturgintzak.
- Gizarte-sarea eta sare birtualak. Biak, lehena oinarri dela.
- Potentzial berezia du euskal kulturgintzarentzat 'herria kultura kontsumitzaile' versus 'herria kultura sortzaile' binomioak.

- Euskal kultur eremuak “ekosistema” moduan ulertuta eta modu horretan garatuta egiten dute aurrera.
- Hiru eremu: merkaturia, gizarte autoeraturia eta botere publikoa. Bigarrena bereziki garrantzitsua da.
- Kultur sorkuntza mailak indargune eta legami: auzo eta herriko kolektiboetatik hasi eta sofistikazio maila handiko sortzaile profesionaletaraino.

- Merkatu “doitua” da bidea.
- Beharrezkoa da administrazio eta gizarte erakundeen papera kokatzea eta hauen arteko adostasun prozesua zabaltzea.
- Gizarte antolatuko indarrek inbateratu bultzatutako politika publikoa behar dugu.
- * &*?¿(/&%\$.”!/())=?¿¿*Ç”^¿?=)(/&%\$.”!.\$%)*

Estrategia orokorrak

- Kulturgintzako eragile sozialak eta gizarte-erakundeak artikulatu bi mailatan: esparru bakoitzaren barruan eta esparru desberdinen arteko eremu orokorrean.
- Esparru bakoitzaren 'ekosistema' lantzea hiru arlotan: transmisioa, sustapena eta jakintza.
- Tokian tokian tokiko gizarte-eragile eta eragile publikoen indarrak norabide berean jarriz, herri eta auzoetako kulturgile, kolektibo eta sortzaileen konexioa sustatzea.

- Euskal kulturgintzaren belaunaldi-transmisorako bideak lantzea.
- Hezkuntza arautuan euskal kulturgintzaren transmisioa txertatzea ikastetxeen jardun curricularrean.
- Esparru bakoitzean merkatu doituaren parametroak landu, adostu eta modu dinamiko batean inplementatzea.

- Euskal kulturgintzaren hedapen edo erresonantzia-kutxa antolatzea Euskal Herriko hedabide-sisteman.
- Jakintzaren arloa indartu eta artikulatzea.
- Euskal kulturgintzari buruzko ikasketak indartzea, bai belaunaldi berrietako gidariatzari begira, eta bai une honetako eragile politiko, kultur teknikari, dinamizatzaile, irakasle eta abarri begira.

- Euskal sorkuntzaren edukiak internet sarean eta teknologia berrietan txertatzea.
- Euskal lurraldeko erdal komunitateei euskal kulturgintzaren hedapen kualitatiboa helaraztea eta mundu mailako presentzia guneak lantzea.
- Euskal sorkuntzaren agertoki unibertsal iraunkor bat sortzea, prestigio handiko proiektu kultural eta arkitektoniko batean.

- “Bisioa eta guneak behar ditugu. Beharrezko da inplikatu daitekeen guztia inplikatzea, maila nazionalean”. 1.30 solaskidea
- “Zer ondare, ze elementu dira geroratu beharrekoak? Ze indar ditugu? Zer da bidean utzi beharrekoa? Termino horietan eztabaidatu behar da, ikuspegi zentratu batetik, euskalduntasunetik, euskaldun izatea munduan egoteko gure modua dela sinestetik”. 1.24 solaskidea

• Mila esker!!

Hizkuntza eta kultura

Hizkuntza minorizatua, kultura minorizatua.

- Hizkuntzaren berreskurapena, kosmobisioaren galera.
- Kosmobisioaren gordetzea, hizkuntzaren galera.

Hizkuntza eta kultura

Hizkuntza eta kultura banandu ezinak dira.

Hizkuntzak eta kulturak bananduta behar dute.

Hizkuntza eta kultura

Bi paradigma:

- Quebec: frantsesez den oro kultura quebectarra da, beste hizkuntzetakoa ez. Hizkuntzak definitzen du. Hizkuntz normalizazioa seguru ez den egoera.
- Hizkuntza hegemonian: Hizkuntza ez da definitzailea, baizik eta jarduera.

Hizkuntza eta kultura

Katalunia: hegemoniaren ereduan.

Frantzia: Quebec-eko ereduan.

Espainia: hegemoniaren ereduan.

Aymara, kitxua: hegemoniaren ereduan.

Euskal Herria?

Hizkuntza eta kultura

“Euskal jendeak hizkuntza garatu du bere kulturaren araudi nagusi gisa, beharbada beste batzuen ezean, eta horixe da gaur eta hemen dugun gure kulturaren sistema-adierazle nagusia”. (Josu Amezaga)

Hizkuntza eta kultura

Beraz, Oteiza ez da euskal kultura. Anjel Lertxundi erdal kultura ote da?

Wikipediako sarrera :“Mikel Laboa: cantante español que tambien canta en euskera”

Azkoitiko Matadeixeko euskaraz kantatzen duen 17 urteko gaztea: “Gu ez gara euskal kultura, guk punk musika egiten dugu. Euskal kultura trikitixa da, bertsolariak dira...”

Hizkuntza eta kultura

Kultur politiketan Kultura egiten da, ez euskara: “Kultura da garrantzitsuena, mezua, ez hizkuntza”

Euskal eta vasco. Euskal kultura, cultura vasca? Zer da zer?

Noiz gertatu da disoziazio hori? Zergatik banandu dira euskara eta kultura?

Hizkuntza eta kultura

Hizkuntzarik gabeko kultura, posible al da?

Gaztelera, hizkuntza zerutiarra.

Kultura k larriz, eta euskal kultura k txikiz.
Normalizazioa ote?

Kulturarik gabeko hizkuntz politika, posible al da?

XXI. Mendeko erronkak

Gizarte aldaketen garaia bizi dugu.

Identitate anitzak, pertenezia anitzak eta aldakorak. Solidotik likidora.

Kontsumoa identitate emaile nagusienetako bat. Kultura kontsumo produktu masifikatua.

Kultura sortu eta kontsumitzeko paradigma berriak.

XXI. Mendeko erronkak

Indibidualismoa: norberaren bizitza mapa egiteko agindua.

Eskubide indibidualen erreinua.

Aniztasunaren eta elkarbizitzaren erronka.

Kultur-aniztasuna edo kulturartekotasuna.

Pertenentzia beharra, taldetasuna, identitatea.

XXI. Mendeko erronka

Zergatik segi euskaldun izaten?

Esan gabe doa, Errezilen: berezkotasuna.
Oxigenoa.

Ezin da esan gabe utzi, Iruñean: kontzientzia.
Oxigenoa, baina bonbonan.

Gozo esaten da. Estetika. Cool da euskaldun
izatea. Tolosan: aukera bat da.

Diskurtsoak

- Identitatrioa. Kontzientzia
- Ekologikoa. Aniztasunaren aldarria
- Justizia soziala. Gutxiagotua dagoena
- Feminismoa. Subjektu politikoa. Intimoa res-republikara ekarri.
- Estetikoa. Hizkuntzaren gozagarritasuna beharrezko da.

Zer diogu euskara diogunean?

- Xabier Montoia: “Punk musika euskaraz izango da edo ez da punka izango”. (80ko hamarkada hasiera)

Zer diogu euskaraz ari garenean?

Zerk egiten du gehiago erakundeen diskurtso hegemonikoen kontra, erakundeen kontrako diskurtso batek gazteleraz, eta beraz erakundeen diskurtso hegemonikoetako baten baitan kokatua, edo erakundeek erabili arren, euskaraz den heinean, erakundeen diskurtso hegemonikoetatik kanpo kokatzen den diskurtso batek? hots, egin daiteke erakundeen kontrako diskurtsorik erakundeen hizkuntza ikuspegiari kontra egin gabe?

Zer diogu euskaraz ari garenean?

Ramon Saizarbitoria: Txikiok asmamen handiagokoak, sorkuntzan askeagoak, izateko aukera dugu.

Eider Rodriguez: Txikiok harriatu egiten gaituzte egunero, beraz, amildegira bidean izan gaitezen sortzaile askeak.

Anjel Erro: Txikiok asmamen handiagokoak, sorkuntzan askeagoak izatera behartuta gaude.

Zer diogu euskara diogunean?

- Euskararen biziberritzea gizartea eraldatzeko tresna bat da bere horretan.
- Beraz, eraldaketa dakartzaten mugimendu eta guneek ez al dute zentzu betea hartzen euskaraz direnean?

Zer diogu euskaraz ari garenean?

- Euskaraz ari garenean, euskara eskaintzen dugunean, euskara normaldu nahi dugunean, parte hartzea, berdintasuna, hezkidetza, eraikitzeko aukera, demokrazia egikaritza eskaintzeak ez al dauka zentzu betea?

Irrien Lagunak Oarsoaldean

- Prozesu parte hartzaile, herritar, ireki eta hezitzaile bat da. Eta euskaraz da.
- Gizarte interbentziorako plataforma bat.
- Eraldaketa proposamen bat da.
- <http://oarsoirriak.net>

Mila esker!